# MARTINA CASIANO ERAIKINEAN IKERKETA ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA

## *Behin-behineko ebazpena*

2015eko abenduaren 14an, Ikerketaren arloko errektoreordetzak eta Bizkaiko Campuseko errektoreordetzak batera publikatu zuten

**MARTINA CASIANO ERAIKINEAN IKERKETA ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA**

Eskaeren ebaluazioa egiteko izapidea amaitu ondoren, HONAKOA ERABAKI DUTE:

Behin-behinean onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda Ikerketaren arloko errektoreordetzaren eta Bizkaiko Campuseko errektoreordetzaren web atarietan argitara dadila agintzea.

Onartutako eskaeren kasuan, ikertzaile nagusiek **2017ko ekainaren 7tik 17ra arte (biak barne)** laguntza hartzeko edo hari uko egiteko epea izango dute. Erabakia posta elektronikoz jakinarazi beharko dute Ikerketaren arloko errektoreordetzara mezua igorriz: rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera mezua igorriz: vrinvestigacion@ehu.eus

Aldi berean, baztertutako eskaeren kasuan, **2017ko ekainaren 7tik 17ra arte (biak barne)** epea izango dute ikertzaile nagusiek alegazioak aurkezteko. Idazkiak Ikerketaren arloko errektoreordetako Ikerketaren Gestioko Zuzendariari zuzendu beharko dizkiote.

Alegazioak paper euskarrian aurkeztu beharko dituzte **nahitaez** Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean, edo bestela, Correosen bulegoetako batean, bidalketa administratiboaz baliatuz, hau da, gutun-azal irekian eta ziurtatutako postaz hurrengo helbidera bidaliz:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektorego eraikina
Sarriena Auzoa, z/g
48940 – Leioa (Bizkaia)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluak zehazten dituen bidetatik at jasotako zuzentze guztiak baztertuak izango dira.

Leioan, 2017ko maiatzaren 30an

**JOSÉ LUIS MARTÍN GONZÁLEZ**
Vicerrector de Investigación
Ikerketaren arloko errektoreordea

**Patxi Juaristi Larrinaga**
Vicerrector del Campus de Bizkaia
Bizkaiko Campuseko errektoreordea

# MARTINA CASIANO

| TALDE ESKATZAILEAREN OTRI KODEA | EBILI (m2) | ESPAZIO BEHARRA | ESLEITUTAKO LOKALA |
|---|---|---|---|
| GIC15/10 | 183 | 113 | (ESLEITZEKE) |
| GIC15/168 | 212 | 190 | (ESLEITZEKE) |

convocatorias.dgi@ehu.eus
www.ehu.eus
BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA